

EKIN IEZAIOZU

“JUAN TORRES”
ENPRESA-PROIEKTUEN
III. LEHIAKETA

2007KO AZAROA

**ERMUAKO
UDALERRIAN
JARDUERA
EKONOMIKO BATI EKIN
NAHI DIOTEN
PERTSONA SORTZAILE
GUZTIEI ZUZENDUTA.**

PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA: 2007KO
AZAROAREN 5EAN BUKATZEN DA. SARIAK:
LEHENGOKO SARI BAT, 9.015 EURO TAKOA,
ESTABLEZIMENDUA IZARRA ENPRESEN
HAZTEGIAN, B+E ENPRESEN BEREZKO
BALDINTZETAN. BIGARREN SARI BAT, 3.005
EURO TAKOA, ESTABLEZIMENDUA IZARRA
ENPRESEN HAZTEGIAN, B+E ENPRESEN
BEREZKO BALDINTZETAN.

INFORMAZIO GEHIAGO
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

T. 943179151

www.ermua.es



ermua
berrikuntza puntua

ERMUAKO UDALA
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

EKIN IEZAIOTZU

IDEIA BERRITZAILEEN ETA ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEEN LEHIAKETA 3

1.1 "SORTZE BERRIKO ENPRESA BERRITZAILEEN NEGOZIO-PLANAK" MODALITATEA. 3

1.1.1 Norentzat da 3

1.1.2 Proposamenen edukia 3

1.1.3 Noiz eta non aurkeztu 4

1.1.4 Baldintzak 4

1.1.5 Sariak 4

1.1.6 Balorazio Batzordea 5

1.1.7 Baldintzak 5

1.1.8 Jabetza Intelektuala 5

1.1.9 Erabakia 6

ERMUAKO
UDALERRIAN
JARDUERA
EKONOMIKO BATEKIN
NAHI DIOTEN
PERTSONA SORTZAILE
GUZTIEI ZUZENDUTA.

PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA: 2007KO
AZAROAREN 31AN BUKATZEN DA. SARIAK:
LEHENGO SARI BAI, 9.015 EUROTAKOA,
ESTABLEZIMENDUA IZARRA ENPRESEN
HAZTEGIAN, B+E ENPRESEN BEREZKO
BALDINTZETAN. BIGARRREN SARI BAI, 3.005
EUROTAKOA, ESTABLEZIMENDUA IZARRA
ENPRESEN HAZTEGIAN, B+E ENPRESEN
BEREZKO BALDINTZETAN.

INFORMAZIO GEHIAGO
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

T. 943179151

www.ermua.es



ERMUAKO UDALA
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

1 IDEIA BERRITZAILEEN ETA ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEEN LEHIAKETA

Ermuko Udalaren Ekonomia Garapen, Enplegu eta Prestakuntza Arloak **Idea Berritzaileen eta Enpresa Proiektu Berritzaileen 2007ko Juan Torres lehiaketan** parte hartzeko deia egiten du. Lehiaketaren aurtengo edizioan, honako modalitate hauek egongo dira aukeran:

1.1 *ideia berritzaileak eta sortzaileak*

1.2 *duela gutxi sortutako enpresa berritzaileen negozio-planak.*

1.1 “Sortze berriko enpresa berritzaileen negozio-planak” modalitatea.

1.1.1 Norentzat da

Beren proiektua garatzeko negozio-plan bat abiarazteko asmoa duten pertsona eta enpresa ekintzaileentzat.

1.1.2 Proposamenen edukia

Gutxienez, ereduak adierazten duen bezalaxe, eduki hauek izan behar dituzte proposamenek:

- a) Proiektuaren izenburua.
- b) Talde sustatzeile/ekintzailearen aurkezpena.
- c) Enpresa-proiektuaren laburpen betearazlea (gehienez 2-3 orri); honako atal hauek izango ditu:

- Enpresa-jarduera eta -helburuak.
- Garatuko diren produktu/zerbitzuak.
- Helburu duen merkatuaren balioztapena.
- Aurreikusitako finantza-beharrak.
- Sortu ditzakeen zuzeneko edo zeharkako lanpostu kualifikatuak.
- Ermuko ekonomia- eta enpresa-garapenari egin diezaiokeen ekarpena.
- Enpresa-ideiaren AMIA azterketa orokorra.

- d) **Berrikuntza teknologikoko** proiektuaren deskribapena. Honako atal hauek izango ditu:

- ***Ekonomia- eta merkatu-ingurunea:***

1. Merkatuaren ekonomia-ingurunearen deskribapena
2. Produktu/zerbitzuaren abantaila konpetitiboak
3. Merkatuaren potentzialtasuna eta erakargarritasuna, merkatuaren segmentazioa
4. Lehiakideen azterketa eta haiekiko posizionamendua

- ***Produktu/zerbitzuen deskribapena:***

1. Produktu/zerbitzuaren berritze-maila
2. Asebetetzen dituen beharrak
3. Aurreikusitako salmenta-bideak
4. Sustapen- eta komunikazio-plana

- ***Eragiketa-planaren definizioa:***

1. Produkzio-prozesuaren deskribapen orokorra, behar izanez gero
2. Helburuen eta estrategien deskribapena
3. Enpresaren kokalekua
4. Jarduera garatzeko beharrezko aktibo finkoen eta azpiegituraren deskribapena

- **Giza Baliabideen Planaren eta Antolakuntzaren definizioa:**

1. Enpresaren Giza Baliabideen politika orokorraren deskribapena
2. Hasierako langile kopurua

- **Plan Teknologikoaren definizioa::**

1. Enpresaren helburu eta estrategia teknologikoen deskribapena
2. Plataforma teknologikoaren deskribapena (hardware, software, etab.)
3. Beharrezko inbertsioen balorazioa

- **Ekonomia eta finantza Planaren definizioa:**

1. Inbertsioen plana
2. Finantza-aurreikuspenak (sarreraren eta gastuen bolumena, egoeraren balantzea, altxortegiko aurrekontua)
3. Ekonomia- eta finantza-azterketa (BEGb, BET, maniobra-fondoa, errentagarritasuna, etab.)
4. Finantzaketa-estrategia
5. Erabili daitezkeen finantza-baliabideak

1.1.3 Noiz eta non aurkeztu

Proposamenak 2007ko azaroaren 5a baino lehen aurkeztuko dira Ermuko Udaleko Erregistroan. Helbidea hau da: Valdespina markesaren kalea zk.g. Aurkezpena egokia ez izateagatik proposamena zuzendu egin behar izanez gero, beste 10 eguneko epe osagarria emango zaie horretarako.

Dokumentazioa paperean aurkeztu behar da Udaleko Erregistroan, eta posta elektronikoko bitartez honako helbide honetara bidali: pye@udalermua.net

1.1.4 Baldintzak

- a) Deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoa izango da proiektuaren ondorio den enpresa-ekimenaren, produktuaren edo zerbitzuaren garapena Ermuan gauzatzea.
- b) Proiektuak originalak, berriak, gazteleraz edo euskaraz idatziak eta beste lehiaketa batzuetan saritu gabeak izan behar dute. Gainera, ezingo dute aldi berean beste lehiaketa batean parte hartu.
- c) Modalitate honetako sariak jasotzeko enpresa abian egon behar da gehienez 12 hilabeteko epean. Hori frogatzeko beharrezkoa izango da eratzeko eskritura eta IFK edo identifikazio fiskaleko txartela aurkeztea.
- d) Proiektua enpresa batek aurkeztzen badu, haren jarduerak ezin du izan 2007 maiatzaren 10a baino lehenagokoa (**Enpresa Proiektu Berritzaileen Juan Torres lehiaketara** aurkeztu baino sei hilabete lehenagokoa). Gainera, egoitza soziala Ermuko lurraldean izan behar du.

1.1.5 Sariak

Modalitate honetarako sariak hauek izango dira:

- **9.015 €-ko** lehen saria eta Izarra enpresen haztegian kokatzeko aukera, I+Eko enpresen baldintza beretan (lehen urtean alokairuaren prezio publikoaren % 50 ordainduko du udalak, eta % 40 bigarren urtean, eta irekitze-baimenaren % 100. Horri honako hau ere gehitu behar zaio: lehen bi urteetan, urte bakoitzeko, % 10eko hobaria izango du enpresa-ekimena sustatu duena emakumea bada edo, enpresen kasuan, gehiengoak emakumeak badira).

- **3.005 €-ko** bigarren saria eta Izarra enpresen haztegian kokatzeko aukera, I+Eko enpresen baldintza beretan (lehen urtean alokairuaren prezio publikoaren % 50 ordainduko du udalak, eta % 40 bigarren urtean, eta irekitze-baimenaren % 100. Horri honako hau ere gehitu behar zaio: lehen bi urteetan, urte bakoitzeko, % 10eko hobaria izango du enpresa-ekimena sustatu duena emakumea bada edo, enpresen kasuan, gehiengoak emakumeak badira).

Honela ordainduko dira sariak:

- % 50 enpresa eratzen den unean, eratzeko eskritura aurkeztuz eta merkataritzako erregistroan edo Kooperatibenean izena emanez.
- % 50 eratu eta merkataritzako erregistroan edo Kooperatibenean izena eman osteko sei hilabeteetan, jarduerari ekin diola egiaztatzeko aurrez dagokion IAEko alta aurkeztuz.

Sarien gaineko epai ofizialetik urtebeteko epea igaro ostean, ez bada enpresarik eratu edo ez badu jarduera hasi, hori justifikatzeko arrazoirik izan gabe, kobratzeke dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galduko du.

Sariak eta fiskalitatea: Irabazleek adierazi ahal izango dute –aurrez justifikatuz– saria gauzatzeko modua (pertsona fisiko baten edo hainbaten edo juridikoaren izenean) eta, edozein kasutan, horien koste fiskala beren gain hartuko dute.

1.1.6 Balorazio Batzordea

Balorazio Batzordea udaleko teknikariek osatuko dute, eta proiektuen kalitatea eta oinarriak betetzen dituzten hartuko dute aintzat.

Balorazio Batzordeak aintzat hartu dituen aukeratze-irizpideak honako hauek dira:

- Proiektua berritzailea izatea (30 puntu)
- Enpresa-planaren enpresa-, teknologia- eta ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna (30 puntu)
- Zuzeneko edo zeharkako lanpostu kualifikatuak sortzeko gaitasuna (20 puntu)
- Ermuaren garapena bultzatzeko eta dibertsifikatzeko gaitasuna (10 puntu)
- Talde sustatzailearen inplikazioa eta talde kudeatzailearen esperientzia (10 puntu)

1.1.7 Baldintzak

Lehiaketara aurkezturiko proiektuari dagokionez, eskaturiko eta/edo emandako edozein diru-laguntza, laguntza edo lehiaketaren berri eman behar dute lehiakideek, baita justifikatu ere.

1.1.8 Jabetza Intelektuala

Deialdi horretan parte-hartzen duten guztiek aitortzen dute proposamenetako programen eta/edo edukien gaineko titulu-jabetza eta legitimazio nahikoa dituztela. Edukiei dagokienez, adierazten dute hirugarren batek Espainian edo atzerrian izan dezakeen jabetza intelektual edo beste edozein eskubide ez dutela urratzen, eta aipaturiko programen eta/edo edukien erabileraren ondoriozko erantzukizunetik kanpo geratzen direla antolatzaileak. Edozein kasutan, beren proposamenetako edukien eta/edo programen erabileraren ondoriozko kalte-galeren erantzule bakarrak parte-hartzaileak izango dira, baita horien erreproduzio, hedatze edo banaketarenak ere.

Proiektuak (edo horien jabetza intelektualak) sustatzaileenak izango dira, eta erakundea ezingo da horien jabe egin.

Gainera, sariak banatu arte proiektuen edukia ez hedatzeko konpromisoa hartu du antolakuntzak. - Entitate antolatzaileei edo kolaboratzaileei (Balorazio Batzordeari, Epaimahaiari eta deialdia egiten duten entitateetako teknikariei) baino ez die emango horren berri.

1.1.9 Erabakia

Deialdia egin duen entitateko ordezkariak osatuko dute Epaimahaia.

Epaimahaiaren erabakia azaroaren 22an jakinaraziko zaie parte-hartzaileei ekitaldi publikoan, eta aldi berean dagokion komunikabideetan argitaratuko da.

Epaimahaiak sari guztiak edo batzuk eman gabe uzteko eskubidea izango du. Atal bateko saria ez ematea erabakiz gero, bi aukera izango ditu: kasuan kasuko zenbatekoa beste atal bati ematea, edo saririk gabe geratutako atalean kalitate nabarmena izan duten lanen ohorezko aipamena egitea.

Epaimahaiaren erabakia argitaratu eta handik astebetera, egileak lanak jasotzera joan ahal izango dira, proposamena aurkeztu zuten tokira, eta hilabete bateko epea izango dute horretarako. Epe hori igaro eta lanen bat jaso gabe egonez gero, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango.

Epaimahaiak lehiaketa honen oinarriak interpretatzeko eta osatzeko ahalmena izango du. Bere erabakiak behin betikoak izango dira, eta ezingo da kontrako errekurtsorik aurkeztu.

Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek eta oinarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak bete-betean onartu behar dira, ezinbestez.